

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI UDAL LIBURUTEGIA

«Asko etortzen dira gomendio eske, oporretan irakurtzeko moduko liburu arin eta entretenigarrien bila»

Irakurle faltarik ez dute sumatzen Hernaniko Udal Liburutegian, Ainara Aiestaran Iruretagoienak eta lankideek; ez heldu eta ez ume. «Ez da egia oraingo umeek ez dutela irakurtzen. Gezurra galanta!» dio. Edonori gomendioa emateko prest dira. Baita iburuak oparitzeko prest ere!

IA neguan bezainbeste lan izaten dute udaran ere, Udal Liburutegian. Hori bai; gehienak, opor egunetarako liburu aproposen inguruan galdezka etortzen dira. «Jende asko dator oporretara dijoalako gomendio eske, oporretan irakurtzeko liburu arin eta entretenigarrien bila», dio Ainara Aiestaran Iruretagoienak, udan lanean ari diren bost langileetako batek.

Edonorentzako moduko gomendioak dauzkate, hala ere, eta eskaintza berezia interes guzietan, liburuak opari azokan...

Denen neurria

Neguko martxarekin alderatuta, «antzeko martxa» nabari dute Udal Liburutegian. «Ekitaldi askoz gutxiago antolatzen dugu, baina maileguan, kontsultazera etortzen den jende kopuruan... antzeko martxan jarraitzen dugu».

Kontsulta egiteko moduan dago, bereziki, aldaketa. «Normalean baino gehiago galdezen digute liburu bat gomen-



Ainara Aiestaran Iruretagoiena eta gainerako lau lankideak prest izaten dira liburutegian, gomendioak egiteko.

GOMENDAGARRIAK

HELDUAK

- Los asquerosos. Santiago Lorenzo.
- Atzerrian. Nerea Balda San Juan.
- Cornelia. Florencia Etcheves.
- Cuando sale la reclusa. Fred Vargas.
- Denok gara google. Xabier Etxaniz Rojo.
- Una educación. Tara Westover.
- Esnearen kolorekoa. Nell Leyshon.
- Fakirrareh ahotsa. Harkaitz Cano.
- Film zaharren kluba. Alberto Ladron Arana.
- Hariak. Joseba Peña.
- La retornada. Donatella di Pietrantonio.
- Todo el bien y todo el mal. Care Santos.

GAZTEAK

- Bajo el paraguas azul. Elena Martínez Blanco.
- Coraline. Neil Gaiman.
- Everest: herri oso bat gailurrean [komikia]. Cesar Llaguno.
- Hilezkorra. Fernando Morillo.
- Sasieskola. Garbiñe Ubeda.
- Sasolako errotraria. Ramon Olasagasti.

*Gomendio gehiago:
liburutegia.hernani.eus

«Nahiago genuke [liburu] gehiago eramango balituzte!»

«Irakurri egin behar dutela esan dieten haurren guasoak etortzen dira laguntza eske, normalean beraien ere ez dute ohitura haundirik irakurtzeko»

datzeko, eta gehienak dira oporretara eramateko liburuak, arinak, entretenigarriak. Istorio tristerik ez. Normalean berdin zaie generoa». Horrelakoetarako «oinarriko liburu batzuk» izaten dituzte zerrendan. «Lanean ari garenok oso desberdinak gara, eta oso gau-

za desberdinak irakurtzen ditugu. Baina badaude liburu batzuk gehienoi gustatu zaizkigunak». Horiekin, eta liburutegira etortzen direnek gomendatzen dituztenekin osatzen dute zerrenda hori. «Ahoz ahokoak asko funtzionatzen du». liburutegia.hernani.eus webgunean ere partekatzen dituzte. Orain arte freskagarriak, udako gida ere atera izan dute. «Baina aurten ezin izan da. Hala ere, urte hasierako Kutunenak gidak funtzionatzen du. Hasi ginen 40 libururekin, eta aurten, dagoeneko, 56 atera dira».

Bestelakorik eskatzen duenik ere bada, ordea. «Badator jendea, baita ere, asko irakurtzen duena. Horiek guretzat zailagoak dira, gomendatzen ditugunak irakurritu dauzkatelako! Baina saiatzen gara. Hilero ja-

sotzen ditugu liburu berriak, eta nobedadeak prestatzean hartzen diegu tankera, zein publiko motari gustatuko zaion. Hala ere, sakonago irakurtzen duten horiek ez digute normalean galdetzen».

Asko ala gutxi, zer ote?

Kopuruak zehazten zaila da, hala ere. «Hilean bat irakurtzea ez da asko, niretzat. Hemen ikusten dugunarekin ez. Asko da, hilean lauzpabost liburu. Dezente daude horrelakoak!».

Liburuak nolakoak diren, berriz, hobe irakurleek erabakitzea. «Literatura ona eta horrelako kontzeptuak ez zaizkit gustatzen. Liburu batzuk denbora gehiago eskatzen dute, baina... Liburuzainen artean bada hor, desadostasunik!».

Eta ez dira helduak, asko irakurtzen duten bakarrak. «Ba-

daude eskolan edo etxean irakurtzea agindu dietenak». Horrelakoetan gurasoak etortzen zaizkie galdezka; «irakurri egin behar dutela esan dieten haurren guasoak etortzen dira laguntza eske, normalean beraien ere ez dute ohitura haundirik irakurtzeko». Baina «badaude haurrek dezente irakurtzen dutenak», eta haiek garbi izaten omen dute zer nahi duten: «bildumak nahiago dituzte».

Interes guzuek, azoka eta online aukera

Gida bila ere asko joaten omen da jendea, «Europa edo munduko beste lekuetako bila, gehiago». Baina udan denak ez dira kanpora joaten. Haietzat Interes Gunean, sarreran, jarri dituzte bestelako gidak. «Euskal Herria oinez izena du. Hemen gelditzen direnentzako. Bertakoa hobeto ezagutzeko, urrutira joan gabe».

Beste batzuk, kanpora joanda ere, ez dira pisu handiak eraman zaleak. Kasu hauetan, eLiburutegia zabaltzen ari omen da. «Liburu elektronikoak irakurtzeko plataformak da. Behar den bakarra da, sareko liburutegi bateko txartela edukitzea». Eta pelikulak ere ikusi daitezke.

Hainbeste aukerarekin, ordea, espazio falta izaten dute arazo, Udal Liburutegian. «Hilero liburu berriak jasotzen ditugu, 80 bat, baina apalak berdinak dira!». Horregatik, xahututako liburuekin, «denbora askoan mailegatu ez direnkin» azoka jartzen ari dira eguraldi ona egiten duenetan, Biteri kanpoaldean. «Asko dauzkagu, eta nahiago genuke gehiago ere eramango balituzte!». Beraz, on egin! ■

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura
24h-ko zerbitzua
943 376 980
Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI
www.funerariavascongada.com

AITAN-ETXE TABERNA
Larramendi, 15
943 55 00 46

MASUSTA EKODENDA
Elikadura Biologikoa
Osagai naturalak
Senda Belarrak
Kosmetika Ekologikoa
Liburuak...
•MEDIKU NATURISTAREN KONTSULTA
•TNDR ETA DEPORTIBO MASAJEAK
•ERDITZERD PRESTAKETA
•GIMNASIA BITALA
•YOGA KLASAK
•ZEN MEDITAZIOA
•TERAPIETARAKO ESPAZIOA ALOKAGAI
ANDRE KALEA, 43 - HERNANI
Tel.: 943 555 710

Amaia arrandegia
Arrainak
Itsaskiak
Fresko eta izoztuak
943 55 07 52 / 650 53 87 72
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI



GAUR Giroak argitzera egingo du, goizean behe-hodei ugari izango dira. Hala ere, arratsaldean hodeiak nabarmen gutxituko dira eta horrekin batera, ostarteak gero eta zabalagoak izango dira. **Min.13° / Max.21°**



BIHAR Giro argia nagusituko da eta epeltzera egingo du. la egun osoan zehar giro eguzkitsua egongo da, hala ere gauean ipar-mendebaldeko haize-arekin batera, behe-hodeiak nabarmenduko dira. **Min.11° / Max.24°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **+** **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI ERREMONTA

Finalerdietako ligaxkara txartela, Ezkurra II eta Ansa IIren artean

Arratsaldeko 16:00etan hasita, lau partidu izango dira gaur ere Galarretan. Hirugarrena izango da Kutxabank txapelketari dagokiona.

FINALERDIETAKO Ligaxkan sartuko da larunbat honetan erremonteko Buruz Buruko Kutxabank Txapelketa, eta bertan nork jokatu duen erabakitzeko azkeneko partidua izango da gaur. Dagoneko beren postua ziurtatuta dute Urrizak, Endikak eta Barrenetxea IVak.

Azpiroz lehiatik kanpo geratu zen larunbatean, eta gaur, Ansa IIak eta Ezkurra IIak jokatu dute txartelagatik.

Arratsaldeko 16:00etan hasita izango dira partiduak, Galarretako frontoian.

Ansa IIak eta Ezkurra IIak

Gaurko sailkatuak Urrizaren kontra jokatu du ligaxkako aurreneko partidua, larunbatean.

hirugarren partidua jokatu dute, 30 tantora.

Ansa IIak, zailagoa

Bien arteko lehia bizia izango da, partiduaren ezaugarri nagusia. Izan ere, biek ez dituzte aukera berberak. Ansa IIa aurrelari urnietarrak irabazi beharra dauka pasatzeko, eta

ez hori bakarrik, Ezkurra IIa 26 tanto baino gutxiagotan utzi beharko du. Ezkurra IIak, aldiz, errazago izango du: sailkapen lortuko luke 27 tantotan galduta ere.

Bion ezaugarriak kontuan izanda, asko jokatu partidua izango da, tanto luzeekin.

Larunbatetik aurrera, azkeneko ligaxka

Gaurko partiduan txartela lortzen duenarekin, larunbatean emango zaio hasiera azkeneko ligaxkari. Han zuzen, gaurko sailkatuak Urriza izango du aurkari, orduan. II

GOIZUETA SUHILTZAILEAK

32.553,69 euro, Goizuetako suhiltzaile bolondresentzat

180.000 euroko diru laguntza jaso dute Nafarroako 7 udalek, tartean Goizuetakoak. Gastu arruntak eta inbertsioak finantzatzeko izanen dira.

LEHENDAKARITZA sailak, Funtzio Publikoak, Barne eta Justiziako Departamentuak 180.000 euro eman dizkie Agoitz, Bera, Goizueta, Leitza, Izaba, Lesaka eta Luzaideko udalei suhiltzaile bolondresak finantzatzeko.

180.000 euroko laguntza hauetan, 159.000 euro gastu arruntetara bideratuko dira; 105.863,56 euro ohiko gastuetarako eta 53.136,44 euro ezohiko gastuetarako. Gainontzeko 21.552,27 euroak inbertsioetarako izanen dira. Goizuetari 32.553,69 euro egokitu zaizkio: 16.040 euro ohiko gastuetarako; 8.535,02 euro ezohiko gastuetarako; eta 7.978,67 euro inbertsioetarako izango dira, hain zuzen.

133 bolondres Nafarroan

Bolondres hauetatik gehien-goak Goizuetan daude, 31 zehazki. 24 Luzaiden, 21 Lesakan, 20 Leitza, 13 Agoitzen, eta 12na, Beran eta Izaban.

31 suhiltzaile bolondres daude Goizuetan, eta 102 mobilizazio egin zituzten aurreko urtean zehar.

Hiriko zein basoko suteei aurre egiteko eta bilaketa nahiz erreskate lanetarako ekipamenduak eta baliabideak dituzte.

2018ko mobilizazioak

Aurreko urtean, 245 aldiz mobilizatu ziren, eta Goizuetako taldea gehiengoa izan zen, 102 mobilizazio egin zituzten, hain zuzen, ambulanziaz egindako 41 joan-etorriak barne.

Hitzarmena Udalekin 2016an

Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako jar-

duneko kontseilaria den María José Beaumontek, lan-kidetzan jarduteko esparru hitzarmena sinatu zuen duela hiru urte, 2016ko maiatzean, hainbat udalekin, haien artean Goizuetakoarekin.

Hitzarmen honen bidez, Barneko Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartu zituen zenbait konpromiso, haien artean; laguntza ekonomikoak ematea. Honela, babes zibileko sistemaren integrazioa aukera erraztuko zaie, eta suhiltzaile boluntarioen eragiketa-prozedurei, formakuntzari, prebentzio eta dibulgazio jardueretan parte hartzea bultzatuko da.

Ezbeharreran esku hartze-ari buruzko ekintza koordinaturako gidalerroak ere finkatuko dira. Konpromiso hauez gain, udalek, haien artean Goizuetako udalak, beren gain hartu zuten Babes Zibilari loturiko zerbitzuen antolaketak eta mantendimendua. II

ASTE NAGUSIA

Kursaalera buelta gaur, Larrañagak

Jazzaldian ere bertan egon ondoren, Kursaaleko Urumea Terrazara egingo du buelta gaur Ainhoa Larrañaga abeslari hernaniarrak. Oraingo honetan eguerdian abestuko du; bertan izango da, Zurriola inguruan musika jarritz, eguerdiko 13:30etatik 14:30etara. Debalde izango da. II

ASTE NAGUSIA (DONOSTIA)

Egun osoan, Zurriola Street Food, Kursaaleko terrazan; eskulangintza azoka Clara Campoamor plazan.
Goizean, Euskal Herriko nekazal produktuen VIII. Azoka, Loiola kalean.
Arratsaldean, Arte Nagusia: Emakumeak artea sortzen, Kontxan.
10:00-13:00, Futbol 5 Txapelketa Azkarra, Benta Berrin.
10:00, Euskal pelotako hastapen ikastaroa Trinitate plazan.
11:00, Barrene pelota-jokoa taldean, Trinitate plazan.
11:00-13:00, Saskibaloia eta karate tailerrak Katalunia plazan.
11:00 Tai-Ji hastapen ikastaroa Easo plazan.
11:30-13:30/17:30-19:30, Forjaketa-rako esakuste tailerra, Clara Campoamor plazan.
12:00-20:00, Waterpolo erakustaldia, partehartze irekia. Nautikoan.
13:30-14:30, Ainhoa Larrañaga, fusioa. Kursaaleko Urumea terrazan.
16:00-17:00, Arte nagusia. Emakumeak artea sortzen. Mimemu, biltzeko paperean margotzen, pertsona guztientzako tailerra, Maritxu Insaustirekin, Kontxako pasealekuan.
16:00-20:00, Puzgarriak, Normahi plazan (Bidebieta).
17:30, Kalean otso, *exean uso*. Haurrentzako antzerkia Kursaaleko Urumea terrazan.
17:30, Bizikleta festa haurrentzat Bulebarrean.
18:00, Erraldoiak eta buruhandiak, Antiguan, Alfonso XIII plazatik aterata.
18:30, Deiadar txaranga erdialdean.

19:00, 71º Antiguako Pelota Txapelketa. Finalerdiak.
19:00, Musika Hamabostaldia. Pucciniren *Madame Butterfly* Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Easo abesbatzarekin, Kursaalen.
19:30, Trintxerpeko Musika Banda *Ilumbe* Bulebarreko kioskoan.
20:00, Ainhoa Larrañaga, fusioa. Kursaaleko Urumea terrazan.
20:00, Gero Axular dantza taldea, Konstituzio plazan.
22:45, Su Artifizialen Nazioarteko 56. Lehiaketa, Kontxako badian: *Vulcano piroteknia* (Madril).
23:15, Zinea Ondarretan: *El Temible Burlón* (1952).
23:30, zezensuzkoen entzierroa, Miramar kaletik aterata.
23:30-02:30, Kursaaleko Gune Zabala: Aste Nagusiko DJ Gazteen IV. Erakustaldia: Telmo Esnaola (23:30). DJ Josu Rodríguez (00:30).
23:30, *Magic spectacular* magia, Katalunia plazan (Gros).
23:30, *Topicana Son* orkestrarekin dantzaldia Easo plazan.
23:30, *Mojo Hand Band* soul&blues musika Bulebarreko kioskoan.
23:30, *Yijaaa!!!* antzerkia Gipuzkoa plazan.
23:45, *Lola Indigo* dance-trap funk musika Tomas Alba plazan (Saguesen).
Piraten egitaraua
13:00, Urban 13, Kaimingaintxon.
20:30, Afari musikatuak Trinian.
23:05, Kontzertuak: Nizuri Tazuneri, Tribade eta Shotta. Flamenkan.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I. URTEURRENA
Angel Landaribar Zubillaga

*Nahiz eta gure artetik joan,
beti izango zaitugu
gure bihotzetan.*

ZURE FAMILIA

Hernanin, 2019ko abuztuaren 13an

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar dugu jatetxe bateko sukaldean laguntzeko eta arraskako lanetarako. Kotxea beharrezkoa da. **Deitu: 943 33 13 87**
Itziño Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**